

Debekatuta egongo dira Tolosako sartu-irtenak gaurtik aurrera

Azken zazpi egunetan 69 positibo izan dira, eta 592ra igo da intzidentzia tasa; erosketak edo kirola egitera soilik atera ahalko da, eta ostalaritzak barnealdeko ordutegia murriztu beharko du // 3

Herritarrak «erdigunean» jarriko dituen aurrekontua

Amasa-Villabonako Udalak 6,8 milioi euroko aurrekontua du aurten; gizarte zerbitzuetan %7,6ko igoera izan dela azaldu du alkateak // 4

Jaka eta Altuna finalerdietara igarotzeko lehian ariko dira

Elkarren aurka jokatuiko dute larunbatean, final-laurdenetan // 7

Asuncionen zerbitzu murrizketa salatu dute

Fisioterapia zerbitzua %33 murriztu dutela salatu du LAB sindikatuak // 5



LEYRE CARRASCO

TOLOSALDEA BISITARIAK HARTU DITU

Aste Santurako eta Pazko asterako eskaintza indartu du Tolosaldea Turismok, eta besteak beste, Santa Maria parrokiara bisita gidatuak egin dituzte // 4



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Hemen da Tolofolk 2021, kultura herrikoia eta munduko musiken jaialdiaren lehen edizioa; folkloraaz gozatzeko zazpi ekitaldi izango dira, igandera bitarte; besteak beste, Luis Astiasaran zizurkildarrak eta Iraide Ansorena tolosarrak hartuko dute parte; Astiasaranek, hitzaldia eskainiko du gaur; Ansorenak, berriz, Turlach taldearekin itxiko du jaialdia

Josu Artutxa Dorronsoro

Apirila amaieran erretiroa hartzeko asmoa badu ere, soinuarekin maiteminduta dagoela aitor-tzen du Luis Astiasaranek (Zizurkil, 1955). Ia 5.000 soinu konpondu ditu, eta guztien fitxak ditu gordeta ordenagailuan.

Lehenik soinu jotzen hasi zinen, eta gero, konpontzen. Zure haurrak balira bezala zainduko dituzu...

Ez pentsa. Arotzaren etxean gerrera zotzez dio esarak, eta hala da nire kasuan. Duela sei urte utzi nion jotzeari, eta 18 urte dira konponketekin hasi nintzela.

Nola aritzen zara?

Etxean dudan tailerrean aritzen naiz. Norbaitek soinu bat ekartzen duenean, nik hemen dudaretako bat uzten diot, berea konpontzen dudana bitartean, lasaia go ibili nadin. Hala ere, hilabetea amaitzerako erretiroa hartzeko asmoa dut, nahiz eta gerora lan honetan jarraitzeko asmoa izan, erritmoa apur bat jaitsita. Lokatzetan aritu behar ez denez, eta etxean aritzen naizenez, ofizio goxoa da. Bi biloba ere baditut, eta ea beraiei lekukoa pasatzerik izaten dudan.

«Erdia makinak egiten du; beste erdia, belarriak»

LUIS ASTIASARAN SOINU KONPONTZAILEA

13 urterekin hasi zen soinuak konpontzen; orain, erretiroa hartu baino lehen, ofizioari buruzko hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, kultur etxean



IRATISAIAR ARTOLA

Gaur, ordea, bestelako lan batean aritzea egokituko zaizu.

Hitzaldi bat eskainiko dut, Tolosako kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Demostrazio bat izango da, soinu nola konpontzen dudan erakutsiko dut: afinatzeko moduak, mekanika, matxurak... Bizpahiru soinu eramango ditut eta tripak aterako dizkiet. Askok hala pentsatu arren, guztia ez baitzaigu eginda iristen; badira ondo landu beharreko tresnak, eta soinuak da horietako bat.

Konponketetarako aparatuek nola funtzionatzen duten ere erakutsiko dut; izan ere, erdia makinak egiten du, eta beste erdia, aldiz, belarriak. Makina oso

onak egon arren, ez dute dena egiten.

Saio didaktikoa izango da. Zer espero duzu ikusleengandik?

Behin egin nuen antzeko hitzaldi bat, Oñatin, eta bertaratutakoak oso gustura atera ziren. Nik, batez ere, publikoak galderak egitea nahiko nuke. Edozein zailantza argitu nahi dut, erakustaldia egin bitartean.

Bizpahiru soinu eramango dituzula esan duzu. Hala ere, etxean gehiago dituzu, ezta?

Bai. Bederatzi ere izan ditut momentu berean, eta une honetan sei ditut; horiek, nireak dira. Konpontzeko, berriz, berrogeita hamar bat ditut apaletan.

Etazenbat igaro dira zure eskuetatik?

4.975. Soinu handiak eta txikiak, era guztietakoak. Ordenagailuan dut bakoitzaren fitxa, gainera. Badira 20 aldiz nigana soinu berdinak ekarri dituztenak.

Azken urteetan gora egin al du soinuarekiko zaletasunak?

Izugarri. Gu hasi ginenean, zenbat izango ote ginen ba? Orain, ia etxe bakoitzean dago trikiti bat. Urte batzuetan geldirik egon den arren, zaletasunari heldu diote askok, eta orain gehiago dira. Hori bai, hasi bezala, askok utzi egin dute. Auskalo zenbat etxetan egongo den soinu bat, geldirik.

Zer iritzi duzu jaialdiarekin?

Beharrezkoa zen hemen inguruan horrelako zerbait antolatzeari. Kultura herrikoia eta folkloraaren zaletasuna handia da Tolosaldean. Beraz, herritarrek bikain erantzungo dutenaren esperantza dut. Duela urte batzuk, Oñatin ere antolatu zen antzeko jaialdi bat; zoragarria izan zen, eta ikaragarritzko arrakasta izan zuen. Tolosakoa, hala ere, bestelako garai batean heldu da. Bizitzaren ari garen egoera oso tristea da, lanerako guztiz nekegarria.

Balio anitzeko perkusio jotzailea da Iraide Ansorena (Tolosa, 1987). Khami izeneko proiektua sortu zuen 2014an, eta freelance modura ibiltzen da, talde, banda edo orkestra ezberdinekin. Igandean, Turlach taldearekin ariko da, Plaza Berrian, 19:00etan.

Erraza al da musika talde eta estilo batetik bestera aritzea?

Garaia eta beharren arabera moldatzen naiz. Ez da erraza, baina ikuspegi zabalenetik hartuta ikasi nuen perkusio instrumentuak jotzen. Horri esker, edozertara moldatzeko gai naitzela esango nuke. Azken lau urteetan, batez ere, folk estiloan murgilduta nabil.

Zer motatako kontzertua eskainiko duzue igandean?

Bi zati izango ditu. Lehenengoa, irlandar dantzen melodiak entzuteko aukera izango da. Alan Griffin irlandarrarekin, Juanjo Otxandorenarekin eta Arkaitz Minerrekin batera ariko naiz. Bere garaian, Euskal Herriko folkaren panoraman, Alboka Folk taldearekin batera arrakasta handia izan zuen Aintzina taldeko kideak dira, eta berriro oholtza baten gainean elkarrekin ikusteko aukera izango

«Oso gertu dugun altxor handi bat da folk musika»

IRAIDE ANSORENA PERKUSIO-JOTZAILEA

Tolosarra izango da jaialdiaren lehen edizioko emakumezko musikari bakarra; horrek, ordea, ez du kikildu, eta bi kontzertutan ariko da



ATARIA

dugu. Euren erreperatorioko hainbat doinu berreskuratu dituzte. Hala ere, herriko artista gehiagok ere hartuko dute parte igandeko emanaldian.

Igandean ez ezik, larunbatean ere ariko zara, ezta?

Bai. Larunbat goizean Hector Braga asturiarrarekin ariko naiz, Plaza Zaharrean. Hasieran, ikusle modura nindoan bere kontzertura, baina azkenean, partaide izatea egokituko zait. Azken momentuko ideia izan da, eta oraindik ere elkarrekin hitz egiten eta zenbait kontu zehazten ari gara. Bere diskoetako kantutak behin eta berriz entzuten nabil egun hauetan, melodiak

nire memorian gorde daitezten. Nahasketa xelebrea izango da, baina gogotsu nago berarekin batera saio bat eskaintzeko.

Hain justu, berezkoa duzun freelance izaerari lotuta doa elkarrekin aritzeko ideia hau.

Nahiko konplexua da elkarren artean oso ezberdinak diren musikari edo taldeekin alde batetik bestera ibiltzea, baina gustuko dut horrela aritzea; ikasketa prozesu modura hartzen dut. Etengabe nabil musika berria entzuten, erreperatoriok prestatzen, entseguak egiten, baina musikatik bizi naiz, eta hau da nire eguneroko lana, eta horrela jarraitzeko asmoa dut.

Zer iruditzen zaizu Tolofolk gisako jaialdiak antolatzea?

Jaialdiaren berri eman zidatenean, sorpresa bat izan zen niretzat. Gaur egun, banda eta orkestrekin gertatzen ari den bezala, zertxobait baztertuta dago folk mundua, masa handiagoak mugitzen dituzten beste musika mota batzuk daudelako. Meritu ikaragarria du musika jaialdi bat antolatzeak, are gehiago folk jaialdi bat bada. Oso gertu dugun altxor handi bat da folk musika, eta beharrezkoa da babestea; bestela hil egingo da, eta museoetan geratuko da bere arrastoa. Egia da, hala ere, azken urteetan, European oro har, berpiztu egin dela. Instrumentu herrikoiak ikasteko gogo handitu da, jaialdiek arrakasta handiagoa dute, eta kultura herrikoia buruzko jakintza areagotzeko gogo eta ilusioa ere zabaltzen da.

Eta zein garrantzia duzue emakumeek folk munduan?

Musika mundua, oro har, eta ez folk musika bakarrik, maskulinizatuta dagoela esango nuke. Bixia bada ere, duela 500 bat urte, emakumezkoen kontua zen perkusioa. Baina, gizartea aldatu den heinean, hau ere aldatu da.

Tolosa da eremu gorrian sartu den eskualdeko bakararra

Gaurtik aurrera ostalaritzaren barrualdean gosariak eta bazkariak eman ahalko dituzte bakarrik; martxoaren 31tik astelehenera arte 104 positibo egon dira eskualdean

Erredakzioa Tolosa

Gaurtik eta astelehenera arte perimetralki itxita egongo da Tolosa. 592ko intzidentzia metatua du eta beraz, 400eko langatik pasa da. Eremu gorrian sartu den eskualdeko herri bakarra da Tolosa. Udalerria itxita egongo da, baina ondoko udalerrira joan ahalko da erosketak egitera edo aire librean kirola egitera.

Ostalaritzari dagokionez, taberna eta jatetxeek ordu jakinetan ireki ahalko dituzte barrualdeak: 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30era. Kirolari lotuta ezingo dira lau pertsona baino gehiago elkartu toki itxietan,

kirolari federatuak eta profesionalak izan ezik. Aldagelak eta dutsak itxita egongo dira, igerilekuetan izan ezik, eta % 35eko edukiera izan beharko dute eta dutsak bakarka erabili. Era berean, neurriak apustu-etxeei eragiten die eta ostalaritza zerbitzua barrualdean soilik eman ahalko dute eta zehaztutako ordutegian bakarrik.

Tolosako Udalak gogoratu du etxeratze aginduak indarrean jarraitzen duela 22:00etatik 06:00etara bitarte, eta erreserbei dagokionez adierazi du apirilaren 11 bitarteko ostatu erreserbetan intzidentzia tasa ez dela kontuan hartuko, baldin eta martxo-

aren 26a baino lehen eginda badaude.

Udalak gogoratu du bestalde, Osasun sailaren esku utzi zuela Beotibar frontoia eskualdeko herritarren txertaketa kanpaina bertan gauzatu ahal izateko. Azken jai egunetan bizkortu egin da txertaketa prozesua eta txertaketak erritmo onean doazela baieztatu du Olatz Peon Ormazabal alkateak. «Elkar babesteko eta zaintzeko txertaketa ezinbestekoa da, baina txertaketa bakarrik, oraindik orain, ez da nahikoa koronabirusaren hedapena mugatzeko eta beraz, ezin gara lasaitu, modu arduratsuan eta zuhurtzia osoz jokatzeko jarraitu

behar dugu gure ingurukoak zaintzeko, hedapena mugatzeko eta laugarren olatu honi aurre egiteko».

AMASA-VILLABONA, HORIAN

COVID-19an positibo eman dutenen kopururik altuena duen herria da Tolosa. Guztira 104 positibo atzeman dituzte martxoaren 31tik apirilaren 5era eskualdean, eta erdiak baino gehiago izan dira Tolosan, 62, hain justu. 5.000 biztanletik gorako eskualdeko beste herrian, Amasa-Villabonan, sei positibo izan dira pasa den asteazkenetik herenegunera bitarte, 169ko tasa du, eta kolore horian jarraitzen du.



Ostalaritza Elkarteko bi dinamizatzaile egon dira Villabona eta Tolosan. L.C.

Tolosaren atzetik Ibarra eta Irura dira positibo gehien izan dituzten herriak, zazpina izan dituztelarik. Amasa-Villabonan sei atzeman dituzte, Anoeta eta Zizurkilen launa, Bidania-Goiatzen hiru, Berrobin eta Lizartzan bina eta Adunan, Amezketan, Asteasun, Larraulen eta Leaburu-Txaraman positibo bana.

Datu orokorreari erreparatuta Osasun sailak esan du, 6.063 test diagnostiko egin zituztela herenegun, eta horietatik, 529 (%8,7) positiboak izan zirela. Gipuzkoan, 213 atzeman zituzten, tartean, 10 Tolosaldean.

Igandean, 6.514 test egin zituzten, eta 564 (%8,7) izan ziren positiboak. Tolosaldean, 23 izan ziren positibo eman zutenak.

Larunbatean, 6.508 test egin zituzten, eta horietatik 491 (%7,5) izan ziren positiboak. Tolosaldean, 21 positibo atzeman zituzten. Ostiralean, 5.411 test eginda, 524 (%9,7) positibo atzeman zituzten, Tolosaldean, 18. Ostegunean, apirilaren 1ean, 6.223 test egin zituzten eta 567 (%9,1) izan ziren positiboak. Tolosaldean, 5 atzeman zituzten. Asteazkenean, martxoaren 31n, 8.771 test eginda, 643 (%7,3) izan ziren positiboak. Tolosaldean, 27.

Ospitaleen egoerari dagokionez, Osasun sailak esan duenez, COVID-19aren ondorioz 50 pertsona ospitaleratu zituzten atzo, orotara, 364 pertsona daude ospitaleetan, eta COVIDa duten 105 pertsona ZIU-n daude.



SANTA MARIA GERTUTIK

Tolosaldea Turismokeskaintza indartu du Aste Santurako eta Pazko asterako. Horiek horrela, asteburuan Tolosako Santa Maria parroikia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da. Sorreatik gaur egun arte izan duen bilakaera ezagutzeko aukera izan dute bisitariak. Izan ere, Santa Maria elizako bazter guztiak miatu dituzte. Kanpoaldea ez ezik, bere barneko altxor berezienak gertu-gertutik ikusteko aukera ere izan dute; pinturak, eskulturak edota organoa, besteak beste. LEYRE CARRASCO

Egoera zaurgarrienean dauden sektoreak lagunduko ditu udalak

Amasa-Villabonako Udalak urtarrileko osoko bilkuran onartu zuen 6,8 milioi euroko aurrekontua; Kopuru horren %9,4a inbertsio berrietara bideratuko dute

Jon Miranda Amasa-Villabona

Urtarrileko osoko bilkuran onartu zuen Amasa-Villabonako Udalak 2021. urterako aurrekontua. «Ezohiko» aurrekontua dela esan du Beatriz Unzue alkateak, «COVID-19aren osasun krisiak berekin dakartzan krisi ekonomiko eta sozialari herriko erakunde publiko gisa behar bezala erantzuteko tresna gisa ulertzen dugu». Politika «aktibo eta eraginkorrak» garatzeko, 6.859.326 euroko aurrekontua izango dute aurtan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko foru funtsaren beherakadak aurrekontuan eraginik izan ez dezan, udalak 575.000 euroko maileru eskatzea aurreikusi du aurtan. «Udalaren zor publikoaren egoera osasuntsua da eta mailegu honek ez du etorkizuneko aurrekontuen egonkortasuna baldintzatuko. Gainera, momentu honetan, gastu maila mantendu eta murrizketak egin beharra saihesteko balioko digu maileguak», esan du alkateak.

Amasa-Villabonako Udalak bere baliabide eta tresna guztiak bideratu nahi ditu herritarren ongizatea bermatzera eta herriko jarduera ekonomikoa laguntzera. «Testuinguru honetan inoiz baino gehiago pertsonak erdigunean jarri nahi ditugu, krisi honek ez ditzan areagotu egoera zaurgarrienean daudenen pobrezia egoera eta bazterketa arriskua». Alkateak nabarmendu du, Gizarte Zerbitzuen sailaren aurrekontua %7,6 igoko dutela aurtan eta laguntza lerro bereziak sortuko dituztela COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta soziala arintzeko: «Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratutako dirua %32 igo dugu eta ezohiko laguntza lerro berri bat sortu dugu merkatari, ostalari eta herritarren beharrianak bermatu ahal izateko».

Unzueren iritzian, osasun krisiak gogorren kolpatu duen sektoreetako bat da kulturarena eta horregatik erabaki dute aurtan arlo horretan gehiago inberti-



Amasa-Villabonako Kale Nagusia atzo; herritarren beharrianak asetzeko aurrekontua prestatu du udalak. J.M.

tzea. Sailaren aurrekontua %7,4 igo da eta ohiko kultur jardueretara bideratutako aurrekontuak %10eko igoera izango du. «Iaz udako hilabeteetako asteburuetan kultur ekitaldiak antolatu ginituen eta herritarrek ondo erantzun zuten. Aurtan, bide horretan sakondu nahi genuke. Bestalde, festa batzordeak Santio jairik ez dela izango iragarri duenez, uztaileko azken aste horretarako ohikoa baino ekitaldi gehiago antolatzeko aukera aztertuko dugu», aurreratu du alkateak.

Ingurumen sailean aurtan izango den hazkundera «azpimarragarria» izango dela esan du Unzuek. %15,5eko igoera izango du atal honek, eta besteak beste, errekak garbitzeko eta Amasamendiko basoetan zuhaitz aldaketak egiteko baliatuko dute dirua. Dena den, Ingurumen sailean izan den aurrekontu igoerak, hondakinen kudeaketaren garestitzeari erantzuten diola nabarmen du du alkateak: «Asko

garestitu da hondakinen bilketa eta tratamenduarengatik udalak ordaindu beharrekoa. Azkeneko hilabeteetan birziklapen tasan beherapena ikusten da eta kezkatuta gaudenez neurriak hartzen hasiak gara. Sentsibilizatzearaz gainera, hondakinen kontrol zorrotzagoa egiten ari gara».

EGITASMO BERRIAK

Udalak 646.588 euro erabiliko ditu aurtan inbertsioak egiteko eta ahalegin berezia egingo du Hirigintza Plan Orokorra desblokeatu eta martxan jartzeko. 50.000 euro bideratuko ditu horretara: «2009. urtekoa da plana eta etxebizitzak egiteko aurreikusitako zenbait gune ez dute Konfederazio Hidrografikoaren baimena. Ordutik hona, ordea, egoera aldatu egin da eta egokitzapenak eginda argi berdea eman nahi genieke gune horiei. Dozena bat partzela dira, gutxi gora behera, geldirik daudenak».

Hirigintzan bestelako inbertsioak ere egingo ditu udalak

2021ean. Une honetan Larrea auzoko asfaltatze lanak egiten ari dira eta Amasako oinezko bidea egokitze 10.000 euro aurreikusi dituzte. Komun publiko berria ere erosiko dute eta horretarako 40.000 euroko inbertsioa egingo du udalak. Berez garbitzen den komuna udaletxe aldamenean jarriko dute.

Energia plana martxan du Amasa-Villabonako Udalak eta aurtengo aurrekontuan 50.000 euro erabiliko dituzte, besteak beste, herriko argiteria LED sistemara egokitzen jarraitzeko. Etxeondo, Larrea eta Aldapetako bidean jarriko dituzte farola berriak. Horrekin batera, udal erakinen eraginkortasun energetikoa aztertze 50.000 euro erabiliko dituzte, besteak beste, herriko argiteria LED sistemara egokitzen jarraitzeko. Etxeondo, Larrea eta Aldapetako bidean jarriko dituzte farola berriak. Horrekin batera, udal erakinen eraginkortasun energetikoa aztertze 50.000 euro erabiliko dituzte, besteak beste, herriko argiteria LED sistemara egokitzen jarraitzeko. Etxeondo, Larrea eta Aldapetako bidean jarriko dituzte farola berriak. Horrekin batera, udal erakinen eraginkortasun energetikoa aztertze 50.000 euro erabiliko dituzte, besteak beste, herriko argiteria LED sistemara egokitzen jarraitzeko.

Olaederra kiroldegiko teilatua izan daiteke horretarako toki

GAKOAK

1 Gizarte zerbitzuak. 2019tik sail honetako aurrekontua %39 igo da. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratutako dirua, adibidez, %32 igoko dute aurtan.

2 Kultura. Aurtan %7,4 igo da kultura sailaren aurrekontua. Ohiko kultur jardueretara bideratutako aurrekontuak %10eko igoera izango du.

3 Ingurumena. %15,5 igo dute sail honetako aurrekontua. Partida berriak sortu dituzte errekak garbitzeko, Amasamendiko mantenu lanak egiteko eta baso landaketetarako. Hondakinen kudeaketaren garestitzeak eragina izan du igoeran.

4 Energia plana. Argiteria aldatetarekin jarraituko dute eta eraikin publikoetan eraginkortasun energetikoa aztertuko dute, 50.000 euro erabilita.

aproposa alkatearen hitzetan, baina horretarako aurrez egokitu egin beharko da sabaia. 164.000 euroko atal bat zabaldu dute aurrekontuan lan horiek egiteko: «Ia 20 urte ditu kiroldegia eta teilatua konpondu beharra dago. Ura sartzen da eraikin barrura eta kantxa ere hondatuta dago. Inbertsio handia eskatzen digu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza eskatuko dugu, lehenbailehen egoerari konponbidea ematea baita gure nahia».

Inbertsio hauekin batera, iaz pandemiagatik etenda geratu zen prozesu parte hartzailea berreskuratuko du udalak. Herritarrek erabakitako proiektuak gauzatzeko konpromisoa hartuko dute udal ordezkariak: «Iazko aurrekontuaren likidazioa egin ondoren, gerakinean dagoen diuaren zati bat, 400.000 euro, herritarren eskura jarriko ditugu. Espero dugu laster prozesua martxan jarri eta herritarrei hitza eman ahal izatea».



Fisioterapia zerbitzuan murrizketak egin dituztela dio LABek. R. CALVO

Fisioterapia zerbitzuan murrizketak salatu dituzte

Asuncion klinikako errehabilitazio zerbitzuan tratamenduak 30 minututik 20ra murriztu izana salatu du LABek; sare publikora pasatzea eskatu dute

Irati Saizar Artola

LAB sindikatuak Asuncion klinikaren emandako zerbitzu murrizketa baten berri eman du: errehabilitazio sailean, zehazki fisioterapia, zerbitzua %33an murriztu dute, izan ere, tratamenduak 30 minutukoak izan beharrean 20 minutukoak izate-

ra pasa direla iragarri dute. LABek dioenez, Asuncion klinikaren jabe den Inviza enpresak «modu aldebakarrean» erabaki du zerbitzua murriztea, «bere irabazi eta posibleak areagotzeko helburuarekin». Salatu dute diru publikoa kudeatzen duen enpresa pribatua dela Inviza.

Murrizketa horiek, erabiltzaileei zein langileei zuzen-zuzenean eragiten dietela esan dute, eta murrizketa hori dela eta, azkenaldian «hamaika kexa» jaso dituztela: «Inviza enpresak, bere ohiko harrokeriaz betetako jarrekin, fisioterapeutas mehatxatu ditu, esanez, kexarik egonez gero eurak izango direla arduraren zama jasango dutenak». Horrek klinikako giroa «guztiz trakestu» eta egoera «jasangaitza» izatea ekarri duela ere esan dute.

LAB sindikatuak azpimarratu du «ez dela zilegi» Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak gertaera hauek onartzea: «Ez da onargarria Osasun sailak enpresa pribatu bati herritarren osasunaren zaintzaren ardura delegatzea, eta nori eta Invizari, urteetan posibleak pertsonen osasunaren gainetik jartzen dituela argi eta garbi erakutsi duenari».

BESTEEN PAREAN

LABek gogorarazi du Tolosaldea dela EAE guztian ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra eta enpresa pribatu batek hamaikadak daramatzala eskualdeko «ospitale funtzioak» egiten, eta bide batez, «pertsonen osasunaren bizkar negozioa egiten».

Tolosaldeko OSIaren erabilitzaileak «diskriminatuta» daudela esan dute, gainerako eskualdeetako biztanleei baino «zerbitzu okerragoa» eskaintzen zaielako, besteak beste. Langileek ere «kudeaketa traketsaren» ondorioak pairatzen dituztela esan dute: «Asuncion klinikako langileen lan baldintzak osasun publikoko gainerako lankideenak baino okerragoak dira, nabarmen».

Esan dute Asuncion kudeatzen duen Inviza enpresa behar den guztietan eramango dutela epaitegietara. «Bide honetan hainbat prozesu judizial martxan jarri behar izan ditugu, eta epaiek arrazoia eman izan digute», gaineratu dute. Oraingoan, ordea, harago joan nahi dute: «Gizarteak berak epaitu dezala nahi dugu, denei jakinaraziz, Eusko Jaurlaritzak diskriminatzeko gaituela gainontzeko eskualdeek baino zerbitzu eskasagoa eskainiz, herritarrengan eta bertako langileengan kalteak sortuz».

Horren aurrean, sindikatu abertzaleak badaki zein den irtenbiderik egokiena: «Asuncion ospitaleak sare publikora pasa behar du eta EAEko gainerako eskualdeek duten zerbitzua eskaini beharko dio Tolosaldeari, ez gehiago ezta gutxiago ere».

Herri-bideen inbentarioa egingo dute

Anoetan egingo den azterketak lau hilabete iraungo ditu eta Conchi Uriarte nekazaritza-ingeniarria arduratuko da



Herri bideen inguruko zalantzak argitzeko balioko du azterketak. ATARIA

Erredakzioa

Anoetako herri-bideen inbentarioa egiten hasiko dira, eta, besteak beste, honakoak izango dira helburuak: Anoetako inguruen ondarea biltzea, bide bakoitzari lege-izaera propioa aitortzea eta haien erabilera araututa uztea.

Lanak lau hilabete inguru iraungo du, eta Conchi Uriarte nekazaritza-ingeniarria ariko da bideen inguruko informazioa jasotzen. Horretarako, litekeena da hainbat herritarrekin harremanetan jartzea: batetik, bideei

dagokien informazioa ahoz jasotzeko; eta, bestetik, herritarren jabetza diren lurretatik biderik pasatzen bada, horien eskritura aztertzeko.

Pello Estanga Anoetako alkatetik adierazi duenez, beharrezkoa da herrian dauden bideak dokumentatzea, eta haien izaera legez aitortzea: «Lan horrek aukera emango digu landa bideen erabileraren inguruko zalantzak argitzeko, eta, ondoren, hartu beharreko neurriak adosteko: nola eta zertarako erabili, zein ibilgailu mota pasa daitezkeen eta abar».



APARKALEKURIK GABE

Datorren astra bitarte, ezingo dira erabili Ibarako Euskal Herria kaleko 51 eta 53 eraikinen pareko aparkalekuak. Azken bi urteetan Gipuzkoako Urak saneamendu-hodiek berritzen ari dira, eta lan horien azken fasea egingo dute Euskal Herria kalean. Lanak egiteko, ordea, beharrezkoa da aparkalekuak behin-behinean ixtea. ATARIA

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

2C AZPIMULTZOA

17. jardunaldia

Escuelas Ciu. de Guadalajara	6
Lauburu Ibarra	4

Saillkapena

1. Tafatrans	48p
3. Otxartabe	38p
3. Lauburu Ibarra	37p
4. San Juan	36p
5. Juventud del Circulo	25p
6. Esc. Ciu. de Guadalajara	27p
7. Pinseque	26p
8. Auzoak de Zierbena	19p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (3)

San Juan (4)

2C AZPIMULTZOA

19. jardunaldia

Villa de Quel

Laskorain

(atzeratuta)

Saillkapena

1. Patatas Gomez Sala	26p
2. Gora Grupo Iron	22p
3. Tauste	23p
3. Villa de Quel	20p
5. Ibararte	16p
6. Laskorain	12p
7. La Union Calatayud	13p
8. Kukuyaga Etxebarri	12p
9. Castro Urdiales	7p

Hurrengo jardunaldia

Tauste (3)

Laskorain (7)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

Saillkapena

(23. jardunaldia)

1. Helvetia Anaitasuna	40p
2. Hierros Servando Eibar	38p
3. Uharte	31p
4. Ereintza Aguaplast	29p
5. Barakaldo	28p
6. Beti-Onak	27p
7. Tolosa Eskubaloia	23p
8. Romo Indupime	23p
9. Easygas Urduliz	23p
10. Egia	21p
11. Jacar San Antonio	21p
12. Estudio Matmata Zara. Ade.	21p
13. Dominicos Zaragoza	16p
14. Navarrete	9p
15. Avefor Huesca	5p
16. Alcorta Forging Group	5p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Eskubaloia (7)

Romo Indupime (8)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

21. jardunaldia

Tolosa CF

At. Revellin

2

Saillkapena

1. San Ignacio	24p
1. Berriozar	22p
3. Atletico Revellin	22p
4. Castejon	21p
5. Mulier	20p
6. Tolosa CF	18p
7. Aurrera de Vitoria	16p
8. Oiartzun	16p
9. Logroñes	14p
10. Arratia	12p
11. Itaroa Huarte	9p

Hurrengo jardunaldia

Mulier (5)

Tolosa CF (6)

HIRUGARREN MAILA

22. jardunaldia

Deusto

Tolosa CF

1

Saillkapena

1. Gernika	43p
2. Real Sociedad C	40p
3. Sestao River	39p
4. Deusto	36p
5. Santutxu	29p
6. Beasain	27p
7. Tolosa CF	24p
8. Aurrera	20p
9. Balmaseda	18p
10. Somorrostro	17p
11. Urgatzi	10p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF

Lagun Onak

Saskibaloia

1. MAILA GIZONEZKOAK

Saillkapena

(11. jardunaldia)

1. Getxo	8-1
2. Redline Mekanika TAKE	7-1
3. Leioa	7-3
4. Fundacion Bilbao Basket	7-2
5. Universidad Deusto Loiola	5-3
6. Tecnum-Askatuak	5-5
7. Ordizia-Basoa Banaketak	4-4
8. Aranguren Multibasket	3-5
9. Estudios Y Obras Rekal. Una.	3-6
10. Atletico San Sebastian	2-8
11. Disdira Bitxitegia	2-6
12. Arri BKL	0-9

Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (2)

Ordizia-Basoa Banaketak (7)

Bigarren fasea lehen postuan hasiko du asteburuan Tolosa CF-k

Futboleko Hirugarren Mailako taldeak beste bederatzi talderekin jokatu du jaitsiera ekiditeko fasea

Imanol Garcia Landa Tolosa

Lehen faseko azken jardunaldi-ko partida jokatzeari falta zitzaion futboleko Hirugarren Mailako Tolosa CF taldeari, eta azkenean asteburu honetan jokatu dute, Deustoren aurka, 4-1 galduz. Hori horrela, zazpigarren postuan eta 24 punturekin bukatu du lehen fasea, eta bigarrenengo asteburu honetan hasiko du, jaitsiera postuetatik salbatzeko asmoz. Helburu berarekin hamar talde izango dira lehian, eta Tolosa da horien artean puntu gehien dituen.

Deustoren aurkako partidaren ondorioz hasi zirela azaldu du Mikel Arruabarrena entrenatzaileak: «Gure alde ondo hasi zen partida, ordu erdi on bat egin genuen, baina gero jokaldi arraro batean penaltia adierazi zuen epaileak gure aurka, eta hortik aurrera beraiek gehiago izan ziren». Partida hori oso ondo etorri zaiela gaineratu du: «Partida hori atzeratutakoa izan arren, asteburu honetan hasten da guretzat garrantzitsua dena, jaitsiera fasea, eta horri begira balio izan digu».

Bigarren fase honetan beste multzoko azken bost taldeen aurka bi partida jokatu dituzte, etxekoa eta kanpokoa. Azken sailkapenean lehen fasean lortutako puntuak ere balioa izango



Tolosa eta Beasain taldearen arteko partida, Berazubín. AGERREMEDIA.COM

dute, beraz, aukerak baditu maila mantentzeko Tolosak. Hamar taldeetatik azken seiak jaitsiko dira mailaz. Tolosarek lehen partida larunbatean jokatu dute, Berazubín, 16:30ean. Azpitiko Lagun Onak taldea izango da aurkaria.

«Hasiera gogorra dugu. Lagun Onak beste multzoan azkena geratu da, baina talde indartsu eta ona du, eta azkenaldian hobe ari da, eta dinamika onean dabil», esan du Arruabarrenak. Horrez gain, kontuan izan behar da Ander Avellaneda tolosarra dela Lagun Onak taldeko entrenatzailea, aurreko urteetan Tolosaren entrenatzailea izandakoa. «Ondo ezagutzen dugu elkar, berak ezagutzen ditu gure jokalariek, eta partida oraindik eta gogorragoa izango da», gaineratu du Arruabarrenak. «Badaki zer gauza on eta txar ditugun, eta horregatik zaila izango da. Gure

alde dugu irabazteko behar gutxiago dugula beraiek baino. Hala ere, gu irabaztera joango gara, aurreko jardunaldietan hirunaka gehitzen joatea garrantzitsua izango da guretzako». Etxeko partidetan azkenaldian taldea ondo ari dela azaldu du, eta horri eusten saiatuko dira larunbateko partidaren.

Bigarren fase honetan partida guztiak garrantzitsuak izango direla azaldu du Arruabarrenak. «Espero dugu lehen fasearen hasiera errepikatzea, eta ea puntuak gehitzen hasten garen», zehaztu du. «Abantaila pixka bat dugunez sailkapenean, hasiera honetan puntu batzuk lortzea oso garrantzitsua da, jakinik gero eta jardunaldi gutxiago geldituko direla, eta partida batzuk irabazi baina beste batzuk galdu egingo dutela. Azkenean xehetasun batzuegatik erabakiko da sailkapena».

Jon Irisarri, ihesaldi nagusian

Erredakzioa

Leaburu-Txarama

Astelehenean jarri zen abian Itzulia eta lehen eguneko erlojupeko saioaren ondoren, atzo izan zuten txirrindulariek lehen lineako etapa, Zalla eta Sestao artean. Ihesaldi nagusi bat sortu zen, zazpi lagunekoa, eta bertan egon zen Jon irisarri leaburuarra. Caja Rural-RGA taldeko txirrindula-

ria. Lau minutuko tartearen ondoren izan zuten tropelarekiko, baina garbi zegoen ez zirela utziko helmugara iristen. Etapako mendate nagusian, bigarren mailako La Asturianan, harrapatu zituzten ihes egindakoak.

Irisarri saiatu zen mendiko sailkapeneko puntuak eskurtzen lehenengo bi mendateetan, baina Quinten Hermans aurreratu zitzaion bietan. Lortutako

lau punturekin hirugarren jarri da mendiko sailkapenean leaburuarra.

Gaurko etapa Amurrio eta Ermualde (Laudio) artean izango da. 168 kilometro izango ditu eta mendate motz baino piko batean amaituko da. Bihar Tolosaldetik igaroko da Itzulia, Gasteizen hasi eta Hondarribian bukatuko den etaparen. Besteak beste, Alkizako mendatea pasako dute.

Jaka eta Altuna aurrez aurre izango dira finalerdien bila

Larunbat honetan jokatuko dute elkarren aurka final-laurdenetako kanporaketa; Jon Ander Peña Albisurekin batera zuzenean finalerdietara sailkatzea lortu du

Imanol Garcia Landa Tolosa

Behin ligaxka bukatuta, Binakako Pilota Txapelketa beste fase batean sartu da. Asteburu honetan jokatuko dira final-laurdenetako kanporaketak, eta partidetako batean izango dira eskualdeko bi pilotari: Jokin Altunak eta Mariezkurrena II.ak aurkari izango dituzte Erik Jaka eta Martija. Aurreko asteburuan jokatu da ligaxkako azken jardunaldia eta hor geratu dira erabakita azken kontuak: Jon Ander Peña eta Albisu zuzenean finalerdietara pasa dira, eta azkenean Jakak eta Martijak seigarren postua lortu dute, beraien partida galdu arren, gero Urrutikoetxeak eta Aretxabaletak euren ere galdu zutelako.

Jon Ander Peña tolosarra izan da ezusteko handiena eman duena ligaxkan, finalerdietara zuzenean sailkatuz. Lehen aldiz parte hartzen ari da binakakoan Peña eta finalerdietara zuzenean sailkatzeak meritu handia du. Maila oso onean dagoen Albisu atzelariarekin batera, azken txanpa ona baliatu dute bigarren postuan sailkatu eta zuzenean finalerdietarako ligaxkara igarotzeko. Horretarako azken jardunaldian 11-22 irabazi zieten Jaka eta Martijari.

Hain justu, bikote horrentzako azken jardunaldia bizia izan da. Euren esku zuten txapelketan jarraitzeko aukera, baina larunba-



Altunak eta Jakak elkarren aurka, Lau eta Erdiko Txapelketaren finalean. I.G.L.

tean partida galdu ondoren, igandean jokatu zenari begira egon behar izan zuten. Erik Jakak azaldu duenez, «guretzat ez zen ondo hasi azken jardunaldia. Larunbateko partidaren ez genuen gure maila eman, bi Jon Anderrek gu baino hobeak izan ziren eta igandekoaren zain egon behar izan genuen». Igandeko partidaren, Peio Etxeberriak Ezkurdiaren lekua hartu zuen, azken hau eskuetako minez zegoelako. «Peiok eta Ladis Galartzak partida oso ona egin zuten, batez ere Ladisek, eta beraiek lortu zuten garaipenarekin eta gure sailkapenarekin, oso pozik, ikusita nola joan den txapelketa».

Jakak eta Martijak ez zuten txapelketa batere ondo hasi. «Guk garbi izan dugu txapelketan zehar uneren batean iritsi behar zuela gure zorte txarraren eta joko bolada eta emaitza txarren

buelta», esan du Jakak. «Tafallako partida inflexio puntu bat izan zen guretzako, eta orduz gero gure mailak gora egin du eta sentazioak eta emaitzak horrekin hobetu dira».

Larunbatean Labriten jokatuko dute Jaka-Martijak eta Altuna III.a-Mariezkurrena II.ak. «Partida gogorra izango da», esan du Jakak. «Ikusita batez ere txapelketa hasiera nolakoa egin zuten, ematen zuen bai edo bai bi lehenengoetan sartuko zirela. Azkenean hirugarren sailkatu dira, baina faboritoetakoak dira, ez bakarrik finalerdietan sartzeko, baita txapelerako ere». Lizartzarrek azaldu duenez, beraiek beren lana egindakoan erakutsi dute edozein bikoteri lana emateko eta irabazteko gai direla.

Txapelketan jokatu dituzten bi partidetan, Mariezkurrenaren arabera egon dela partidaren ga-

koa esan du Jakak: «Egun ona izan duenean, atzelari handien pare jo du, eta aginte hori Jokinek aprobetxatu du. Guretzako berri ona da Julenen [Martija] eskua ere ehuneko ehunean dagoela, eta atzelari handi horiei eusteko gai dela erakutsi du behin baino gehiagotan, eta oraingoan ere parekatzea lortzen badu, Jokinek eta nik lehia polita izan dezakegu aurrean, eta edozeinen aldera erori daiteke partida».

Jokin Altunak azaldu duenez, «partida batera jokatzen duzunean, edozein bikoteri izaten diozu errespetu handia. Beraiek maila handiko bikotea osatzen dute. Txapelketa hasieran ez ziren hain fin egon, baina bigarren itzulian ikusi da zer joko puntua hartu duten». Altunak garbi du berak eta Mariezkurrenak beren «gauzak ondo egiten» zentratu behar dutela: «Guk ondo funtzionatu dugu txapelketa guztian. Peña eta Albisuren kontra galdu egin genuen, baina ondo eraman genuen markagailuan. Hasieran ondo sartzen gara, eta larunbatean ere hori egin behar dugu, asko dagoelako jokoan. Finala ez da, baina aukera ematen du hiru finalerdi jokatzeke, eta hori handia da».

Behin finalerdietara pasatuz gero, aukerak ikusten ditu Altunak txapelaren lehian izateko: «Gu jakitun gara larunbateko partida oso garrantzitsua dela

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

1. Elezkanon II - Zabaleta	11-3
2. Peña II - Albisu	10-4
3. Altuna III - Mariezkurrena II	9-5
4. Ezkurdi - Ladis Galarza	7-7
5. Olaizola II - Rezusta	6-8
6. Jaka - Martija	5-9
7. Urrutikoetxea - Imaz	5-9
8. Artola - Aranguren	3-11

PROMOZIO MAILA

1. Salaberria - O. Etxebarria	13-1
2. Zabala - Erostarbe	10-4
3. Elordi - Garmendia	9-5
4. Zubizarreta III - Uriondo	7-7
5. Alberdi - Salaverri III	6-8
6. Larrazabal - Eskiroz	6-8
7. Egiguren V - Ruiz	3-11
8. Arteagall - Elizegi	2-12

guretzako. Irabaziz gero konfiantza handia emango digu eta nik behintzat ikusten dut aukerak ditugula finalerako borrokan egoteko, eta horretarako saiatu behar gara dena emanda».

Ligaxkaren azken jardunaldian Artola-Aranguren bikoari 22-11 irabazi zioten Altuna III-Mariezkurrena II bikoak Amezketan jokatutako partidaren. «Txapelketa orokorrean oso ona egin dugu», esan du Altunak. «Astebetean partidak ondo bideratu genituen, eta gero pixka bat alde egin ziguten azken momentuan, eta horregatik sailkatu gara hirugarren. Orain asteburuan partida zaila baina ederra dugu, eta horretarako mentalizatuta gaudugu».

PROMOZIO MAILA

Iker Elizegi asteasuarra eta beraekin aurrelari aritu den Arteaga II.a promozio mailako ligaxkan azken lekuan geratu dira. Azken jardunaldian, Elizegik ez zuen jokatu, eta bere ordean Jon Erasun zizurkildarra aritu zen. Arteaga II-Erasun bikoak 11-22 galdu zuten Salaberria-O. Etxebarria bikoaren aurka.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€ bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2021EKO APIRILAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Euskal Herria Batera ekimenak herritarrak zoriondu ditu Aberri Egunean «keinu bateratua» egiteagatik: «Baliagarria izan daiteke dinamika honi eutsi eta urtean behin keinu bateratua proposatzea»

Dinamikari eusteko deia

Erredakzioa

Pasa den urtean bezala aurten ere modu berezian ospatu behar izan dute herritarrek Aberri Eguna. Iaz bal-koietatik egin zen aldarria eta aurten herriko plazetara jaitsi da.

Euskal Herria Batera ekimena izan da aurten herriko plazetan abesteko deia egin duena eta herritarrak zoriondu ditu hamaika herritan ekimenarekin bat egin dutelako. «Gure taldearen proposamenak berriro mugiarazi ditu milaka herritar Euskal Herri osoan, eta keinu bat egin dugu batera, komunitate garena eta sentitu nahi dugula adierazteko».

Iazko irakurketa berbera egi-ten dutela esan dute ekimeneko kideek eta gogoratu dute aurrera begira «bateratasuna areagotuko duen herrigintza» behar duela Euskal Herriak «etorkizuneko proiektu politikoen oinarria izango den komunitatea trinkotzeko». «Herrigintza horretan erabili beharko dugu eztabaida demokratikoa beti, konfrontazioa behar denean eta lankidetzaz ahal den guzietan, herritarron, eragileen eta erakundeen indarrak norabide bateratuan jartze-ko».

Euskal Herria Batera ekimene-ko kideek esan dute, era berean,



Goian Anoetan, eta behean, Tolosan, igandean, Aberri Egunean. ATARIA / L. C.

norabide horretan baliagarria izan daitekeela Aberri Egune-ko dinamika bateratzaile honi eus-tea, «eta urtean behin keinu ba-teratua proposatzea Euskal He-rri osoko herritarrei, askotariko

herritarrak protagonista kolekti-bo izan daitezen».

Tolosaldeari dagokionez, bes-teak beste Alegian, Anoetan eta Tolosan egin dituzte Aberri Egu-na ospatzeko ekitaldiak.

ASTEAZKENA 07

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Osasunaren Na-zioarteko Egunaren harira, Yo soy Sam filma, Gurean, 19:00etan.

Amezket. Kirol eguna ludotekan. Goizean herri kirolak, eta arratsalde-an frontenis.

Larraul. Larraul-Anoeta bizikleta ir-teera, 10:00etan abiatuta.

Tolosa. Tolofolk: Luis Astiasararen hitzaldia, kultur etxean, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxe-aren SOS Sahara 3 tabernan.

Tolosa. Itzalpeko emakume euskal-dunak Aranburu jauregian.

Tolosa. 1970-2020 Burgosko Pro-zesua erakusketa, Aranburu jaure-gian.

Tolosa. Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak, Topic-en.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Musika zuzenean (AFU eta Mattin Saldias)

11:30. Gaurkoan Tolosalde-rik

17:30. Gaurkoan Tolosalde-rik

22:00. Lehen lerroan (Jon Urdanga-rin)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina Asier Imazek gidatuta: eguraldia, albisteak, kolaboratzaileak...

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko arratsaldeko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ederra izango dugu. Goizean hodeiren bat edo beste ikusiko badugu ere, eguerdirako zerua erabat garbi geratuko da, eta arratsaldean eguraldi eguzkitsua gozatu ahal dugu. Haizeak ipar-ekialdetik bizi joko du eta tenperatura maximoak 14-15 graduan kokatuko dira.

Bihar. Giro ederrarekin jarraituko dugu. Goizean ze-rua garbiago agertuko da eta, nahiz eta tarteka hodeiren bat edo beste ikusi, eguraldi ederra izan-go da. Arratsaldean erdi eta goi-mailako hodei gehiago agertuko da, baina ez dute bestelako ondorio-rik ekarriko. Haizeak hegotik, tarteka harro joko du eta tenperaturak na-barmen egingo du gora. Tenperatura maximoak 20-21 gradu artean ko-katuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa-nen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



ISASTEGI
~ SAGARDOEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM

DASTATU UZTA BERRIA

OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA
EGUERDIETAN

TOLOSATIK AUTOBUSA